

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TOKIKO TURISMO-PRODUKTUEN ETA -ZERBITZUEN DISEINUA	Iraupena	90
		Espezifikoa	
Kodea	UF0083		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Turismoa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Tokiko turismo-produktuak eta -zerbitzuak	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Turismo-produktuen eta -zerbitzuen sustapena eta merkaturatzea	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC01075_3: TOKIKO TURISMO-ZERBITZUAK ETA -PRODUKTUAK SORTZEA, SUSTATZEA ETA KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Esparru jakin batean tokiko turismo-produktuak sortzeko eta garatzeko aukerak detektatzea ahalbidetuko duen turismo-ahalmena ebaluatzea.

- EI1.1 Sektore turistikoaren bilakaera-prozesua deskribatzea, baita sektoreko eragileen funtzioak eta haien arteko erlazioak eta tokiko esparru jakin batzuen garapenarekin eta beste sektore ekonomiko batzuekin duten lotura ere.
- EI1.2 Zona jakin bateko turismo-eskaera osatzen duten aldagaiak zerrendatzea, elkarrekin lotzea eta haien ezaugarriak zehaztea, eta turismo-eskaera hori baldintzatzen duten motibazioak eta beste faktore batzuk aztertzea.
- EI1.3 Turismo-informazioko iturririk adierazgarrienak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea.
- EI1.4 Tokiko turismo-produktu eta -zerbitzu jakin batzuk merkaturatu zer segmentutara zuzendu daitezkeen identifikatzea.
- EI1.5 Zona jakin batzuetako baliabideak, zerbitzuak eta azpiegiturak identifikatzea, katalogatzea eta inbentariatzea, hala badagokie.
- EI1.6 Jardun-esparru jakin batean garatutako turismo-produktuen posizionamendua aztertzea.
- EI1.7 Jardun-esparru jakin batean turismo-produktu batek zer turismo-ahalmen duen eta zer posizionamendu izan dezakeen jakiteko aukera emango duten analisi estrategikoko metodoak identifikatzea, hautatzea eta aplikatzea.

A2: Tokiko inguruneetan turismo-produktuak eta -zerbitzuak sortzeko, hobetzeko eta garatzeko estrategiak abian jartzea eta ebaluatzea, kontuan izanik eremuaren turismo-ahalmena, egungo eskaera, izan litekeen eskaera eta ingurumen-babesa.

- EI2.1 Zona baten mugapena eta turismo-formak abiapuntu izanik, gara daitezkeen turismo-zerbitzuak eta -produktuak eta haien tipologia deskribatzea.
- EI2.2 Tokiko turismo-produktuen —gaur egungoen eta etor litezkeen— osagaiak (baliabideak, turismo-zerbitzuen oinarriko eskaintza eta eskaintza osagarriak) inbentariatzea eta katalogatzea, betiere egin ahal izateko moduan eta sustatzeko ahalmen egokia izateko moduan.
- EI2.3 Tokiko esparruetan turismo-produktuak eta -zerbitzuak sortzeko, hobetzeko eta garatzeko proiektuak egitea, eta, horretarako, zonaren turismo-ahalmena eta gaur egungo eskariaren eta etor litekeenaren ezaugarriak aztertzea.
- EI2.4 Proposatutako tokiko turismo-produktuen osagaiak eta haiek garatzeko beharrezko ekintzak definitzea eta argudiatzea, haien bideragarritasuna aintzat hartuz eta indarrean dagoen hirigintzari, ingurumen-babesari eta turismo-antolamenduari buruzko legeria aplikatuz.
- EI2.5 Turismo-produktu edo -zerbitzu motaren arabera sustapen-estrategiarik egokienak zein diren argudiatzea.
- EI2.6 Definitutako turismo-produktuak eta -zerbitzuak garatzeko ekintza egokien denbora-programazioa proposatzea.
- EI2.7 Jarduerak programatzean, garapen jasangarriaren eta ingurumen-babesaren printzipioak aplikatzea.

Edukiak

1. Turismo-sektorea

- o Turismoaren fenomenoaren jatorria eta bilakaera historikoa. Haren garapenean eragiten duten faktoreak. Turismo-fluxuen dinamika eta bilakaera: bidaia-ohitura berriak.
- o Sektorearen antolamendua. Esparru juridikoa, ekonomikoa eta soziala.
- o Turismoaren arloan eskumena duten herri-administrazioak.
- o Turismoaren eskaintza eta eskaria: baliabide, zerbitzu, ekipamendu eta produktu turistikoak.
- o Sektoreko merkaturatze-egitura.
 - Operadore turistikoak: betetzen dituzten funtzioak.

- Gaur egungo merkaturatzeko bideak: bezeroaren zuzeneko erosketa.
- Turismo-zerbitzuak sortzeko, abian jartzeko, garatzeko eta egiteko prozesua.

2. Lurralde-antolamendua eta plangintza estrategikoa

- Lurralde-antolamenduko planak eta haien eragina turismoaren garapenean.
- Araudiak.
- Tokiko turismo-produktuen eskaintzari, eskariari, egiturari, bilakaerari eta joerei buruzko informazio-iturriak.
- Turismo-baliabideak identifikatzeko eta katalogatzeko tekniken analisia eta aplikazioa.
- Merkatuen ikerketa, sektoreko plangintza-tresna gisa.
- Metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak. Aplikazio estatistikoak.
- Turismo-produktuen eta -helmugen plangintza estrategikorako tekniken analisia eta aplikazioa. Lehiakideen aurreko posizionamendu estrategikoa.
- Turismo-zerbitzuak sortzeko, abian jartzeko, garatzeko eta egiteko prozesua.

3. Tokiko turismo-produktuen eta -zerbitzuen sorkuntza eta garapena

- Tokiko turismo-produktu eta -zerbitzu moten analisi konparatiboa egitea eta haien ezaugarriak zehaztea.
- Tokiko turismo-produktuak definitzea, birdefinitzea eta garatzea. Faseak eta gauzatzea. Zerbitzuak diseinatzea eta garatzea.
- Tokiko turismo-produktuak sortzeko, garatzeko eta hobetzeko proiektuak: aukera, bideragarritasuna eta gauzatze-plana. Proiektuak finantzatzea. Proiektuen kudeaketa.
- Tokiko turismo-produktu baten bizi-zikloaren faseak.
- Ekimen turistikoen kudeaketa.

4. Turismo-garapen jasangarria

- Garapen jasangarriari buruzko sarrera: alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta soziokulturalak.
- Garapen jasangarria tokiko planifikatzaileentzat.
- Ingurumenak garapen turistikorako duen garrantzia. Ingurumen-inpaktuak.
- Ondare naturalaren interpretazioaren sorrera eta garapena, ondare naturala zaintzeko eta turismo-baliabide gisa egoki erabiltzeko tresna gisa.
- Ingurumen-kudeaketa turismoan: energiaren eta uraren kontsumoa, hondakinen tratamendua, eta beste alderdi batzuk.
- Ingurumena hobetzeko plana, kalitate-politikaren barruan.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea